

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

Kale-garbiketarako peoi gidaria (E) lanpostua LANBIDE bitartez aldi baterako betetzeko BEHIN BETIKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea (2026ALKO0004).

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

“Udaleko Giza Baliabide eta Antolaketako teknikari naizen honek honako txostena eman dut:

Espediente zk.:..... 2026ALKO0004

Espedientearen helbidea: OÑATI.

Gaia:..... Kale-garbiketarako peoi gidaria (E) lanpostua LANBIDE bitartez aldi baterako betetzeko BEHIN BETIKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea

Interesduna:..... Oñatiko Udala

Gertakariak:

Oñatiko Udaleko 2026ko otsailaren 20ko Alkate Probidentzia bitartez Kale-garbiketarako peoi gidaria lanpostua aldi baterako betetzeko oinarriak argitaratu ziren LANBIDEn.

Izen-emate epea amaituta, 2026ko martxoaren 2ko alkatearen 399. dekretuz, ondorengo behin-behineko onartu eta baztertuen eta merezimenduen zerrendak onartu eta argitaratu ziren:

DEIALDIA: KALE-GARBIKETARAKO PEOI GIDARIA (2026ALKO0004)
Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Onartuen zerrenda:

<i>Izen-abizenak</i> <i>Nombres y apellidos</i>
ARITZ URRESTI ARRIZABALAGA
IÑAKI AIZPURUA AIZPURUA
JOSE MARIA ALBISU BARANDIARAN

Ez da bazterturik egon.

DEIALDIA: KALE-GARBIKETARAKO PEOI GIDARIA (2026ALKO0004)
Merezimenduen behin-behineko zerrenda



Behin-behineko merezimenduen balorazioa, hurrengoa da:

	Ikastaroak (gehienez 10 puntu)	Lan-esperientzia (gehienez 10 puntu)	GUZTIRA
ARITZ URRESTI ARRIZABALAGA	3,3	2,9	6,2
JOSE MARIA ALBISU BARANDIARAN	0	0	0
IÑAKI AIZPURUA AIZPURUA	0	0	0

Honako zerrenda jendaurrean egon den epean (martxoaren 2tik 5era -biak barne-) ez da erreklamaziorik jaso.

Deialdiak hornitzea helburu zuen lanpostua, ordea, aldi baterako ezintasun-egoera batek eraginda geratu zen hutsik eta, denbora-tarte honetan, lanpostua betetzen zuen pertsona bere lanpostura itzuli da, aldi baterako ezintasun-egoera gaindituta. Hori dela eta, honako deialdiaren helburua bertan behera utzi beharrean da Oñatiko Udala, hartarako beharrezana desagertu delako.

Dena den, bidezko eta egoki jo da deialdi honetako hautagaitzak, erabakitako hurrenkeran, erabili ahal izatea etorkizunean Oñatiko Udalean sor litezkeen antzeko zeregin, lanpostu eta lanpostu-kategoriak betetzeko.

Proposamena:

Lehena: Ondorengo behin betiko onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea eta Oñatiko Udaleko web orrian argitara ematea.

Bigarrena: Etorkizunean Oñatiko Udalean sor litezkeen antzeko zeregin eta lanpostuak betetzeko erabili ahal izatea prozesu jakin honetarako jasotako hautagaitzak, sor litezkeen beharrezan berri horiek asetzeko propio beste lan-eskaintza bat abiatu beharrik gabe. Zerrenda hau, ezarritako hurrenkeran, izaera bereko lanpostua behin behineko izaeraz betetzeko erabili ahal izango da, betiere lehentasuna, dena den, bertako zein beste udal batzuetako lan-poltsek izango dute, baleude.

Hirugarrena: Hemen eskatutako profilarekiko pareko diren etorkizuneko balizko lanpostu hutsak betetzeko, lan-poltzarik ezean, merezimenduetako puntuazioaren arabera izangaiei deituko zaie eta hurrenkeraren arabera baietza eman ahala kontratazio-proposamenak egingo direla adieraztea.

DEIALDIA: KALE-GARBIKETARAKO PEOI GIDARIA (2026ALKO0004)
Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda



OÑATI
dabilen herria

Onartuen zerrenda:

<i>Izen-abizenak</i> <i>Nombres y apellidos</i>
ARITZ URRESTI ARRIZABALAGA
IÑAKI AIZPURUA AIZPURUA
JOSE MARIA ALBISU BARANDIARAN

Ez da bazterturik egon.

DEIALDIA: KALE-GARBIKETARAKO PEOI GIDARIA (2026ALK00004)
Merezimenduen behin betiko zerrenda

Behin betiko merezimenduen balorazioa, hurrengo da:

	Ikastaroak (gehienez 10 puntu)	Lan-esperientzia (gehienez 10 puntu)	GUZTIRA
ARITZ URRESTI ARRIZABALAGA	3,3	2,9	6,2
JOSE MARIA ALBISU BARANDIARAN	0	0	0
IÑAKI AIZPURUA AIZPURUA	0	0	0


Goian aipaturikoa ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko alkate naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilia, erabaki dut:

Lehenengoa: Kale-garbiketarako peoi gidaritarako aldi baterako lanpostua betetzeko behin-betiko onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea.

Bigarrena: Etorkizunean Oñatiko Udalean sor litezkeen antzeko zeregin eta lanpostuak betetzeko erabiltzea prozesu jakin honetarako jasotako hautagaitzak, sor litezkeen beharrian berri horiek asetzeko propio beste lan-eskaintza bat abiatu beharrik gabe, betiere lehentasuna, dena den, bertako zein beste udal batzuetako lan-poltsek izango dutelarik, baleude.

Hirugarrena: Hemen eskatutako profilarekiko pareko diren etorkizuneko balizko lanpostu hutsak betetzeko, lan-poltzarik ezean, merezimenduetako puntuazioaren arabera izangaiei deitzea eta hurrenkeraren arabera baietza eman ahala kontratazioak egitea.

Laugarrena: Erabakia Oñatiko Udaleko webgunean argitaratzea eta Lanbideri honen berri ematea.



OÑATI
dabilen herria

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2026ko martxoaren 06a

Alkatea



OÑATIKO UDALA

Izaro Elorza Arregui

